

LAN-ESKAITZA ATARIAN: LABORATEGIKO TEKNIKARI FAKULTATIBOA

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2023KO MAIATZAREN 3TIK 9RA.

LANPOSTUAREN DATUAK

Kodea: **510360/8**

Deskribapena: **Laborategiko Teknikari Fakultatiboa**

Bitarteko funtzionario izendapena lanpostua bete arte.

Urteko ordainsari gordina: 50.777,94€

Saila: **Osasun Saila**

Herria: BIZKAIA

Kontratuaren hasiera data: Berehala

Aurrikusitako iraupena: Luzea Urte bat baino gehiago

Funtzioak:

- Laborategiaren arloan ebaluazio-txostenak egitea
- Laborategiko metodoak eta teknikak gainbegiratzea
- Laborategiaren arloan planak eta programak kudeatzea
- Laborategiaren arloan jarduerak koordinatzea
- Laborategiko kalitatea kontrolatzea
- Laborategiaren arloan metodoak eta sistemak diseinatzea
- Laborategiari buruz aholkatzea
- Laborategiarekin lotutako kontsultei erantzutea

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

(Parte hartzeko baldintza orokorrak)

Graduko titulazioa edo lizentziatura Laborategi Eskalara sartzeko ikasketa-eremuren batean.

- Biologia
 - Biokimika
 - Ingurumen-zientziak
 - Kimika
 - Elikagaien zientzia eta teknologia
 - Farmazia
 - Erizaintza
 - Industria Kimikaren Ingeniaritza
 - Medikuntza
 - Bioteknologia
- (Titulazioen zerrenda ikusi).

Beste baldintza batzuk:

- **Analisi klinikoetako espezialistaren titulua edo biokimika klinikoko espezialistaren titulua**
- **Euskararen ezagutza maila: 3. HE (C1)**



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ESKAERAK AURKEZTEA

1. Interesdunek Internet bidez bete beharko dute eskabidea. Horretarako, helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen eredu bat bete beharko dute: <https://www.ivap.euskadi.eus/enplegu-ivap/>
2. Eskabidea aurkezteko, beharrezkoa izango da nortasuna ziurtagiri digitalaren bidez egiaztatzea. Esteka honetan adierazten da nola eskuratu ziurtagiri digitala: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikarako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>
3. **Eskabidearekin batera, alegatutako mereximenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia soila aurkeztu beharko da. Lan-esperientziaren kasuan, lan-bizitzaren ziurtagiriaren eta kontratuen kopia edo emandako zerbitzuen ziurtagiria (administrazio publiko eta erakunde autonomoetan emandako zerbitzuen kasuan).** Alegatutako baldintzek eta mereximenduek beteta egon beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.
4. Deialdi honetan **ezin izango dute parte hartu:**
 - a. Lanpostua atxikita dagoen eskalei dagozkien lan-poltsetako langileak, haien egoera hautaezin bada Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautaketa 2021eko urtarilaren 7ko Aginduaren 13. artikuluan ezarritako edozein arazoirerengatik.
 - b. Lan-poltsetan **integatu gabe** Administrazio honetan lanean ari diren langileak, aipatutako Aginduaren 7.8 eta 10.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera.
 - c. Administrazio honetan txanda-kontratu batekin zerbitzuak ematen ari diren langileak, aipatutako Aginduaren 12.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

MEREXIMENDUEN BAREMOA

(Gehieneko puntuazioa: 12 puntu)

I- Azken 5 urteetako lan-esperientzia. 6 puntu, gehienez.

- Administrazio publikoetan eta erakunde autonomoetan antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan: 0,1 puntu hilabete bakoitzeko. Emandako zerbitzuen ziurtagiri bitartez egiaztatutako behar da.

- Sektore pribatuan antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko. Lan-bizitzaren ziurtagiriaren eta kontratuen kopiarekin egiaztatutako behar da.

II- Prestakuntza-jarduerak. Gehienez 4 puntu.

- Eskatutako jakintza-arloko prestakuntza espezifikoak: analisi klinikoaren/biokimika klinikoaren laborategia: erakunde ofizialek, unibertsitate-zentroek, osasun publikoko eskolek, nazioko edo atzerriko irakaskuntzarako programa egiaztatutako duten erakunde sanitarioek, elkargo profesionalek, elkarte zientifikoek eta osasun-administrazioak arlo horretan beste erakunde batzuei diruz lagundutako jarduerak emandako edo egiaztatutako graduondoko ikastaroetan, masterretan eta diplometan parte hartzeagatik, diplomak edo ziurtagiriak hala jasota badago.

Honako taula honen arabera baloratuko dira:

- 20 ordutik 29 ordura: 0,50 puntu.
- 30 ordutik 59 ordura: 0,75 puntu.
- 60 ordutik 99 ordura: puntu 1.
- 100 ordutik 199 ordura: 1,50 puntu.



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

- 200 ordutik 399 ordura: 2 puntu
- 400 ordutik 599 ordura: 2,50 puntu.
- 600 ordutik aurrera: 3 puntu.

Ikastaroak edo diplomak kredituetan agertzen direnean, 10 orduko kredituaren baliokidetasuna egingo da.

OHARRA: espezializazioan egindako ikastaroak ez dira baloratuko, baldin eta espezialitatearen irakaskuntza-programan sartuta badaude.
Ikastaroak azken 10 urteetakoak izan behar dira, 150 ordutik gorako ikastaroak izan ezik.

III- Hizkuntzak (ingeleza, frantsesa, alemana. Gehienez 2 puntu.

- B1: 0,25 puntu.
- B2: 0,75 puntu.
- C1: 1 puntu.

PROZESUAREN GARAPENA

1. IVAPeko zuzendariak balorazio-batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek hiru kide izango ditu, eta merezimenduak baloratuko ditu, planteatutako zalantzak eta erreklamazioak ebatziko ditu, hautaketa-prozesua behar bezala bideratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta hautatutako pertsonak proposatuko ditu.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, balorazio-batzordeak honako hauek argitaratuko ditu:

- a) Hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita, hala badagokio.
- b) Merezimenduen balorazioa.
- c) Prozesuaren emaitzak.

3. Berdinketa hausteko irizpideak. Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Emakumearen alde, emakumeak kidegoan %40 baino gutxiago direnean.
- b) Baloratutako esperientzia gehien dutenen alde.
- c) Tituluetan puntuazio altuena dutenen alde.
- d) Hezkuntza Sailaren urteko berdinketa hausteko letra, hautaketa-prozesuetarako.

[Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa](#)

ESLEIPENA ETA ADMINISTRAZIOAN LANEAN HASI

Prozesu horretan parte hartzeak ez du parte-hartzaileen aldeko inolako eskubide edo igurikimenik sortuko. Administrazio honetan zerbitzuak ematen hasten diren hautatutako langileak **ez dira** dagokion poltsan sartuko, eta ezingo dute mugikortasun-prozesuetan parte hartu. Era berean, prozesuaren emaitza ezaugarri bereko eskaintzetarako langileak hautatu behar direnean erabili ahal izango da, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskaintza esleitzen denetik zenbatzen hasita.

PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, betekizun espezifikoez gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko legezko adina ez gainditzea.

b) Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat (21) urtetik beherako ondorengoak izan edo adin horretatik gorakoak izan, haien kontura bizi badira.

c) Eman beharreko zerbitzuak normaltasunez egitea eragozten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea, lanpostua desgaitasunen bat duten pertsonen behar zehatzen arabera egokitzeko har daitezkeen neurriei kalterik egin gabe.

d) Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organotako zerbitzutik banandua edo kaleratua ez izatea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten funtzioen antzekoak betetzeko, baldin eta banandua edo desgaitua izan bada. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik ez izatea.

e) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea.

2. IVAPEk egiaztatuko du parte-hartzaileek eskabidean betekizun gisa alegatutako titulazio akademikoa. Hala ere, pertsona horiek eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala eskatzen zaienean.

Halaber, IVAPEk euskararen ezagutza egiaztatuko du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Erregistroan titulurik ez duten pertsonak eskabidean alegatu beharko dute, eta tituluaren kopia eskaneatua aurkeztu.

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz egingo da egiaztapena.

3. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira aurreko baldintza guztiak. Baldintza horiek prozesu osoan bete beharko dira.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoaren babesari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak "hautaketa-prozesuen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Tratamenduaren arduraduna: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko edo toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen beharrak aldi baterako betetzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea, bai eta parte-hartzaileei prozesu horien garapenaren berri ematea ere. Zehazki, parte hartzeko eskaeren kudeaketa, minusbalotasunagatik arrazoitutako probak egiteko egokitzapen-eskaeren kudeaketa, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratzea, proben kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa, prozesuekin lotutako erreklamazioen eta errekursoen kudeaketa, eskatzaileek prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioaren kudeaketa, probetara bertaratzearen kontrola, ziurtagiriak ematea, prozesuei buruzko datu historikoak kontsultatzea, azterlanak eta estatistikak egitea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da 16/1983 Legearen 4. artikulua Herri Alduralaritzaren Euskal Erakundeari esleitzen dizkion helburuak betetzeko.

Informazioaren hartzaileak: datuak Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzari lagatzea aurreikusten da, dagozkion lan-poltsak kudeatzeko. Euskadiko Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei ere lagatzea aurreikusten da, lan-poltsa propiorik ez dutenean. Kasu horretan, interesdunek berariazko baimena eman beharko diote lagapenari, hori egin ahal izateko.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatze eskubidea, bai eta informazio gehigarrian azaltzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza webgunean kontsulta dezakezu.

<https://www.ivap.euskadi.eus/hautaketa-prozesuen-kudeaketa/z16-h2home/eu/>